

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
<b>Haurtzaroa, Osasuna eta Elikadura</b>	<b>151304</b>	<b>2020-2021</b>
<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Sehilekoa</b>
<b>HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
<b>Oinarrizko Formazioa</b>	<b>6 ECTS</b>	<b>Euskara</b>
<b>Irakaslea(k)</b>		
<b>Irati Alvarez Piñero</b>		

### Justifikazioa

Ikasgai honek, etorkizuneko irakaslegoari haurraren garapenari eta honi lotuta disfunczio eta asaldura desberdinei buruzko ezagutza zabala eskaintzen dio. Etapa honetan izango dituen irakasle funtzioak aurrera eramateko beharko duen oinarrizko ezagutza bideratzeko esperientzia jasoko du ikasleak.

Bide batez, haurrek izango dituzten oinarrizko beharrei erantzuten lagunduko dien baliabideak eskuratu eta horien planifikazio egokia egiteko, ikaslea gogoeta egitera bultzatuko du.

Behaketan eta informazio bilketarako tresnen diseinuan trebatuko da ikaslea. Horien bidez, haurren garapenaren jarraipena egiteko eta balizko asaldurak antzemateko baliabideak eskainiko zaizkio. Baita familia edo beste profesionaleri antzemandakoa komunikatzeko trebeziak ere.

### Aurrebaldintzak

Ez daude

### Gaitasunak

**Gaitasun orokorrak**

Ahozko komunikazioa (lehen maila): norberaren ideiak ondo antolatuta eta ulertzeko moduak adieraztea, une egokian mintzatuz eta ekarpen egokiak eginez hala harreman egoeretan nola egoera formalago eta egituratuagoetan.

## Berriazko gaitasunak

- Garapen eta portaera osasuntsuaren oinarritzko printzipioak aztertu eta baloratu.
- Haur Hezkuntzako ikasleen elikadura, higie-ne eta loaren beharrak modu egokian ebaluatu.
- 0-6 urte bitarteko haurren garapen egokian eragina duten asaldura eta gabeziak identifikatu.
- Familiek eta profesional desberdinek, 0-6 urte bitarteko haurren garapen egokian eragina duten asalduren eta gabezien aurrean, horiek antzemateak eta esku-hartzeak duen garrantziari buruzko kontzientzia garatu.

## Edukiak

1. Garapen osasuntsuaren printzipio orokorrak
2. Garapen ereduak
3. Elikadura Haur Eskolan
4. Higie-ne haurtzaroan
5. Lo Haur Eskolan
6. Garapen-asaldurak eta horien antzematea
7. Ebaluazioa Haur Hezkuntzan
8. Familiekin kooperatzeko ereduak
9. Kooperazioa edo lankidetzaren beste profesionalekin

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

- **Ikasketa gaiaren testuingurua zehazten lagunduko duten ekintzak:** norberaren esperientzietatik abiatuta garapen osasuntsua eta honetan eragiten duten aldagaiei buruzko gogoetak, esperientziak eta hautemateak aztertuko dira.
- **Gogoetara bultzatzen duten ekintzak:** idatzizko eta ikus-entzunezko dokumentuen bidez garapenaren asalduren gertaera eta ondorioei buruzko hausnarketak bideratuko dira.
- **Ikasgaiaren edukiei buruzko lanak eta aurkezpenak:** aurkezpenak, testu eta artikuluen irakurketa, kasuen analisiak... bideratuko dira garapenaren eta asalduren inguruko ulermen sakona bultzatzeko.
- **Ekintza praktikoak:** ariketa praktikoak, role playing-ak,... bideratuko dira garapenaren asaldurak antzemateko, eta familia eta profesionalekiko komunikazio egokia izan dadin trebeziak lantzeko.
- **Ebaluaziorako ekintzak** (hurrengo atalean zehazten dira)

## Ebaluazioa

## **LANAK:**

- Banakako lanak:
  - Ahozko komunikazioa Role Playing (5%)
  - Ahozko komunikazioa Aurkezpena (2%)
  - Loa (20%)
- Talde-lanak:
  - Ahozko komunikazioa Txostena (8%)
  - Elikadura (15%)

## **FROGA OBJETIBOAK**

- Lehen unitateari buruzko froga objektiboa (% 5)
- Azterketa finala (% 45)

## **BALDINTZA OROKORRAK**

- Ebaluazioaren % 85 berriazko konpetentzien kalifikaziora zuzenduta dago; gainontzeko % 15 orokorraren kalifikaziora.
- Ikasgaia gainditzeko beharrezkoa da atal bakoitza gainditua izatea: azterketa finala eta lan bakoitza.
- Ohiz kanpoko ebaluazioan, ikasleak lan guztiak aurkeztuta eta gaindituta eta azterketa finala gaindituta izan beharko ditu ikasgaia gainditu ahal izateko.

## Dokumentazioa

Aretxaga, L. (koord.) (2013). *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Barandiaran, A., eta Larrea, I. (2016). Ebaluazioa haur hezkuntzan. Paradigma aldaketa. *Hik Hasi*, 29. Monografikoa.

Barandiaran, A., Larrea, I., eta Lopez de Arana, E. (2011). *Haurraren ongizatea I: Oinarri psikopedagogikoak*. Arrasate (Gipuzkoa): Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

Barandiaran, A., Larrea, I., eta Lopez de Arana, E. (2011). *Haurraren ongizatea II: Hezkuntza proposamenak*. Arrasate (Gipuzkoa): Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

Berjano, E. y Pinazo, S. (2001). *Interacción social y comunicación*. Valencia: Tirant Lo Blanch.

Borjas, M. P. (2016). *Ludoevaluación en la educación infantil*. Madrid: Editorial Verbum.

Burgos, A., Fernández, M., Alba, G., eta Justicia, A. (2017). *Optimización del desarrollo y prevención de riesgos en el aula de educación infantil. Manual (2ª ed.)*. Madrid: Ediciones Pirámide.

Burgos, A., Fernández, M., Alba, G., eta Justicia, A. (2017). *Optimización del desarrollo y*

*prevención de riesgos en el aula de educación infantil. Seminarios* (2ª ed.). Madrid: Ediciones Pirámide.

Estivill, E. y Béjar, S. (2009). *Duérmete niño. Cómo solucionar el problema del insomnio infantil*. Barcelona: Ed. De Bolsillo.

González, C. (2005). *Bésame mucho. Cómo criar a tus hijos con amor*. Madrid: Temas de Hoy.

Gutiérrez, D., Bartolomé, R., y Hernán, L. M. (1997). *Educación infantil II*. Madrid: McGraw-Hill.

Labayen, I. (2010). *Haur-nutrizioa osasunean eta gaixotasunean*. Usurbil: Elhuyar Fundazioa.

Marchesi, A., Coll, C., y Palacios, J. (2012). *Desarrollo psicológico y educación 3. Trastornos del desarrollo y necesidades educativas especiales*. Madrid: Alianza Editorial.

Palacios, J., Marchesi, A., eta Coll, C. (1999). *Garapen psikologikoa eta hezkuntza I. Psikologiaebolutiboa*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Papalia, D. E., Olds, S. W., y Duskin, R. (2001). *Psicología del desarrollo*. Bogotá: McGraw-Hill.

Sanz, R. (2005). *Educación infantil de 0 a 3 años. Una guía práctica*. Valladolid: Editorial de la Infancia.